

MOILABERRIKOA



Non dagoen: Txomin Agirre kaia eta Gernika parkeko Moilaberria elkartzen ditu.

Noiz egina: 1987an inauguratu zen, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena bete zen urtean.

Bitxikeriak:

- Hasierako zubiak malda handi samarra zuen (hortik datorkio "jorobao" ezizena) eta ez zen eroso handik igarotzea.
- 2010ean Udalak berritu eta egokitu egin zuen zubia, irisgarritasuna hobetzeko.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

ZUBITXIKIA



Non dagoen: Arroaerrekairen bi aldeak elkartzen ditu, Basadiberria herrigunearekin lotuta, Foronda jauregiaren parean.

Noiz egina: 1794an egurrezko bat egin zuten (Laskurain izan zen proiektugilea).

Bitxikeria:

- Gerra Zibilean azpian lehergailuak jarri eta bota egin zuten, altxatuei etorrera eragozteko edo zailtzeko.
- 1936ra arteko zubia burdinazkoa zen, Zubiaundiaren tankerakoa, egileak ere berberak izan zirelako (Auguste Lecocq eta Jose Etxeberria).



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

BONBILLOKOA



Non dagoen: kiroldegi ingurua (lubakiak) eta Bonbillo aldea (edo Bidabeazpia, garai bateko Etxeona) elkartzen ditu.

Noiz egina: 2008an inauguratu zuten.

Bitxikeriak:

- Oso arina da eta 2009an saria eman zioten zubia diseinatu zuen enpresari.
- Forondatik eta Amezmenditik ibai alderako inguruari deitzen zaio Bonbillo.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

JADARREKOA



Non dagoen: Jadarre auzoa eta GKN lantegiaren aurrealdea elkartzen ditu.

Noiz egina: 1970eko hamarkadan egindako zubia da, poligono alderako eta ondoko lantegirako sarbidea erraztu zuena.

Bitxikeriak:

- Kiroldegiaren eta futbol zelaiaren ondoan dagoenez, entrenamenduetan saltaka aritzeko "zirkuitua" osatzeko balio izan du Zubitxikiarekin batera. Kilometro bateko buelta da, gutxi gorabehera.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

TXIKIERDIKOA



Non dagoen: Irubide edo Txikierdiko bidegurutzea eta Kanteragañerako bidea elkartzen ditu.

Noiz egina: 1880 ingururako agertzen da bidegurutzea agirietan, eta ordurako zubia egina izango zuten.

Bitxikeria:

- Kamineroetxea dagoen inguruan benta edo taberna bat ere egon zen martxan XIX. mendearen amaieran.
- Ondoko lantegikoa eta bide berrikoa kontuan hartuta, hiru zubi daude elkarren ondoan.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

NARRONDOKOA



Non dagoen: Narrondoko herrigunetik Zumaia alderako errepidea igarotzen da gainerik.

Noiz egina: seguruena 1930 inguruan Aldundiak bultzatu zituen obra handietan egingo zuten zubi hau ere.

Bitxikeria:

- Beste zubi bat ere egon zen Narrondon, Baiona baserriaren ondoan (gaur egungo tabernaren inguruan).
- Narrondoerota eta Etxeberritxiki baserriaren ingurua elkartzen ditu ondoko beste zubi polit batek.



**ZUMAIKO
ZUBIAK**

*en skar
txanpa*

FABRIKAKOA



Non dagoen: Errotagain etxea eta Soraitzeneko bidegurutzerako ingurua elkartzen ditu, Oikia eta Meaga aldeak.

Noiz egina: 1798tik agertzen da agirietan, eta 1876an hasita berreraiki zuen Foru Aldundiak, Antonio Kortazarren proiektuan oinarrituta.

Bitxikeria:

- XIX. mende hasieran egurrezkoa zen zubia, eta tropa karlistek suntsitu omen zuten.
- Zementua egiteko fabrika bat zeukan ondoan, eta hortik datorkio izena. 1855 inguruan Igartzako jauregiko nagusiek sortua, 1915era bitartean egon zen martxan.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

MANTZIZIDORKOA



Non dagoen: Otsango, Lorekoa eta Lasalde baserriak Soburutz ingurukoekin elkartzen ditu, Oikia eta Artadi aldeak lotuta.

Noiz egina: Zumaiako zubirik zaharrena izan daiteke, XV. mendeko agirietan jada aipatzen delako inguru horretan zubi bat bazela.

Bitxikeriak:

- Erromanikoa edo erromatarra dela diote batzuek, baina ez da hala, dotoretasuna begi bistakoa izan arren.
- 1776an konpontzeko premia handia zuela agertzen da agirietan. Ondoan zubi txiki bat eduki zuen lehen, Mantzizidorko errota-aren ubidearen gainean, orain Zubitxo deitutako inguruan.
- Ahoz **Mantziorkoa** esaten diote, eta Mantzior izena du Oikiako elkarte batek; oikiarren armarrian ere agertzen da zubia.



**ZUMAIKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

BEDUAKOA



Non dagoen: Beduako etxeak eta Joxe Mari Korta industrialdea (Gorostiaga ingurua) elkartzen ditu.

Noiz egina: nahiko berria da, 1970eko hamarkadan eraikia, Gorostiaga industrialdea egiteko.

Bitxikeriak:


- Lehen txalupa erabili beharra zegoen hor ibaia igarotzeko.
- 1 Formulako zirkuitu bat egiteko proiektua egon zen 1980 inguruan, itxura batean xeke arabiarren bat atzetik zela.
- Beduaundi etxearen ondoan beste zubi txiki bat badago, baratzetara joateko.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

TRENUBIA



Non dagoen: Estazio aldeko Basadizarra eta Artadiko Abola ingurua elkartzen ditu.

Noiz egina: Trenbidearekin batera eraiki zuten, XX. mendearen hasieran. 1898an hasi ziren trenbidea prestatzeko lanetan eta 1901ean inauguratu zuten.

Bitxikeria:

- 1941eko otsailaren 15ean, larunbat gau batez, haizeteak trena ibaira bota zuen eta 18 pertsona hil ziren istripuan.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*

ZUBIBERRIA



Non dagoen: Estazio aldea eta Santiago auzoa elkartzen ditu.

Noiz egina: 1973an egin zuten, Zubiaundia ez zelako egokia trafiko handia jasateko.

Bitxikeriak:

- Egin eta gutxira, bihurgunearen goragunea edo peraltea egokitu behar izan zuten, *errebuelta* hartzean istripu bat baino gehiago izan zelako.
- Horietako istripu batean sukaldeko ontziteriez beteko kamioi bat irauli zen, eta etxe batzuetan baxera berria osatu omen zuten osorik irtendako ontziekin.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*en skar
txanpa*

ZUBIAUNDIA



Non dagoen: Estazio aldea eta Santiago auzoa elkartzen ditu.

Noiz egina: 1884-1885ean eraiki zuen Auguste Lecocq belgikarrak, eta ingeniaria Jose Etxeberria izan zen (Zubitzikia ere haiek egina).

Bitxikeriak:

- Zubi hauen berezitasuna izan zen pilareen muturrean helize modukoak erabiltzea; behin sartuz gero, oso zaila izaten zen ateratzea. Europan horrelako beste zubirik ez dago ia.
- Udalak eskatu zuen 'birakaria' izatea, baina ez zuen lortu. Ibaian gorako nabigazioa jaitsita zegoen ordurako (XIX. mendearen erdialdean Azpeitiko errepidea egiteagatik), baina zubia eraikitzeak Beduarako trafikoaren etena ekarri zuen.
- Orain oinezkoentzat bakarrik da eta su artifizialak bertatik botatzen dituzte. Batzuen Zubigorria deitzen diote.



**ZUMAIAKO
ZUBIAK**

*enskar
txanpa*